BAGILLA-JUNIO
27
Egubaztena - Miercoles
Bilbao, 1934

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA
...bao'kua ... ... 6,00 Irko, Iru ile.
Bilbao'atazkua 7,50 " "
Idazki-Itunmena 62,00 " urtez
Atzarrijetakuak 100,00 " "
Beldayen itunduba

XXII urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.º || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 6.723 zenbakija

Egunekua

Zarate'tar Josu

Olantxe, Zarate'tar Josu eritxon gixon artezi oni, zuk biarba, irakurle, "Patxolo" bakarik eritxola usteko zeban baña.

Eta Bilbao ta Euzkadi osuan be ezaguna ixan zan "Patxolo" begikua, igazi dan igande gabian il zan. (G. B.)

Igande gabian il, eta astelen artatsaldian obiraldu.

Obiraltze au zala-ta, Bilbao'rik geyena "Patxolo" zanaren gorpu-atze-ziar igitu zan, eta Jon deunaren inguru-birako txaidiak notiñez beteta geratu.

¡A lango notintzarik! Atuturiko txaidietan zirkiñik be ezin eukian egin. Euzko-Alderdi Jeltzalia'ren agindarijak, osuan lagundu eutsen.

"Libe" antzerkiko antzezlari-lagunak be bai.

Burestunetan, bariz, edozenbat ixan ebazan.

"Patxolo", ezagunetan be ezaguna ixan zan, ba, ta gustijen adizkide ona ganera.

Adizkide asko ta zintzuak ixan ebazana, bere gorpu-eruatian ikusi zan. Gorpu-eruate onen jarai, ¡milaka asko notin ikusi ziran, ba!

Eta danak itun, gustijak ben, buruzbera ta otoya espanetan ebela.

Bost-sei urteko ume bijurijak be, euren ume-alatasun berezija galduta, itun-itun ikusten ziran.

"Patxolo" adizkide onaren il-izpara lenengoz ekari eustana be, umetxu bat ixan zan: lau urteko alabatxuba.

—Atetxu, "Patxolo" il da"—esan eustan gaxuak.

Eta erijotza aren ondorengo min gustija bijotzan sartu ixan ba-litzakon, itun-itun geratu zan.

Umetxubaren izpar baltzak eta izpar au niri esatian arek imiñi eban aurpegi itunak, bijotz-bera imiñi nenduben, eta izpar itun a emon eustana andratxu bat bai-litzan, itaunak-itaun egiten.

—"Patxolo" ¿nor don, ba, alabatxu?—itandu neutsan

—"Patxolo" "Radijotik" berba egiten daben gixona da, ata—erantzun eustan.

—Eta ik matetxu, ¿nungo "radijotik" entzun dotsena, ba, "Patxolo,'ri?

—Miren Karmele ta Pedro Mari'ren laguntxuba nazana, ¿eztakixu ala, atetxu? Onein etxian "radijua", dago, ba, ta andixik "Patxolo" gixonari entzuten geuntsan.

—¿Zertzu gauza esaten yonazan, ba, "Patxolo" gixonak?

—Bare ta bare erateko ipuñak esaten ebazan. Miren Karmele ta Pedro Mari'ren atak eta amak be, eñalako bariak egiten ebezan. Eta geuk be bare ta bare egiten gendun.

—Baña ik eztakiña zertzu ipuin esaten yozapan.

—Bai atetxu ba-dakit. Polit - politak esaten ebazan, bare ta bare erateukuak.

—Eta "Patxolo" il egin dala, ¿zelan jakin don, ba?

—"Radijuak" esan dausku. Eta "Patxolo" il egin dala esan dabenian, Miren Karmele ta Pedro Mari'ren ama ta be, itun-itun geratu dira, ta geu be bai. Oraain ez ei-deusku "radijotik" geyago ipuñik esango... Olako gixon onak, ate ¿zegatik ilten dira?

—¿Onak zegatik ilten diran, diñostan alabatxu? Zerura juateko, matetxu. Zerua onak sartzeko bakarik egiña dona, ba. Eta Jaun-Goikua'k, onak zerurako gura ixaten yozan, eta araxe eruateko, il egiten yozana.

—Eta zeruan, ilda dala, berbarik ezingo da, ba.

—Zeruan sartzeko, matetxu, bariro biz tu egiten dozana baña.

—¿"Patxolo" be bai atetxu?

—"Patxolo" be bai matetxu.

—Orduban andixik, zerutik berba egingo dausku.

—Eta zubek, zeruko aingeru bakuntxubok, "radijotik" entzungo dautsazube..

—¿Egija, atetxu?

—Egi-egija, matetxu.

—Orduban, atetxu, negarik egin eztayen, Miren Karmele ta Pedro Mari laguntxubei esaten nua.

—Bai alabatxu; juadi, juadi...

* * *

"Patxolo" gixagaxua, umetxubak mate be mate eben. Eta aren uste bako erijotzeak, itun be itun imiñi dauz.

"Patxolo", berak, be, ba, gixon moroskua zanaren, ume-bijotza eukan, donokiko gotzonen gozuakaz amesetan egiten ekijan eden bako bijotza.

Ori dala-ta, umiak mate be mate ixan eben. Eta aren bixitzeak alai-alai iminden ebazan umiak, aren erijotzeak itun-itun imiñi dauz.

Eta "radijotik" (umetxubak diñuen lez) baño entzun eztautsen umiak oren asko mate ixan ba-eben, bere ata-belaun matalien ganian dantza, mosu, ipuin eta abes ti matalien artian asi dauzan seme-alabatxu kutunak, ¿zenbat ez ete-eben mate izango?

Iratsoi-bidez baño ezagutu eztaben gixonaren erijotzeak, gure umetxubak onen itun imiñi dazanian, egunoro etxeko matasunian ezagutu ixan daben atearen seme-alabatxubak, ¿zelan imiñiko ete-ebazan?

Gure ume bakuntxubak "Patxolo,'ren erijotzea bide dala bijotzetaratu daben miña ta ituna, beste "Patxolo,'ren antzekuen batek iratsoi-bidez esango dautsezan ipuñen batzukaz azturazoko dautsezanak dira.

Ara barik geratu diranena ez ostera, arein umezurtz-bijotz itunak alatuko dauzan "Patxolo,'ren antzekorik ezta geyago jayoko. ¡Erukarijak!

* * *

Ata barik geratu diran umezurtzok, eruki ixan dagiguzan. Eta datoren egubenian Bilbao'ko "Campos Eliseos" antzokijan antzeztuko dan "Libe" antzertija ikusten juanaz, umezurtz erukarijoi begijetan geratu yakezan negar-malkuak legorituteko zapijak eskubetaratu dagijoguezan.

Zuaz irakurle, zu be, datoren egubenian; "Libe" ikusten zuaz.

Eta an, baratzako eguzkitan ikusiko dozun erlejuari begira ikusiko dozun "Matxiño" Bilala'ren otsein zintzua ikustian, "Patxolo" zanagaz gomutau zatez, eta arek emen ludijan ata barik laga dauzan iru seme-alabatxubakin, erukitu...

Eta azkenian, otoi bat zuzenduyozu.

(Goyan bego).

URIBITARTE'TAR IBON.

ARIMIA

Gixa-Arimia Illezkorra da

Ustelkora ixatia ta ilkora ixatia bardin ezta.

Bixirik eztabenak be ustelkorak dira, baña ilkora ixateko bixiduna ixan-biar da, iltia bixija galtzia baño eztalako.

Zerbait ustelkora izatekotan, gaikija ixan biar, dau, usteldutia gaikixakija eraldu daben gaiki-atalak, "elak" daben eralguntzia galdu ta ixaki ori ez ixatera eltzia dalako. Usteldu euzkel-ixenak auxe dikurala dirudi. Utzera eldu, utz ixatera eldu.

Au ta guzti be baña, edozein eralguntza-galtzia usteldu ixenez eztazaugu. Urtzi ixan-ezik, berezik eztau, baña berez ixena askotan darabilgu, ta ixakija eguzki, axe, euri ta abar, berez lez, galtzen danian usteldu egin dala deritxogu.

Augatik, diran gogorez, eralguntzia berez ezin dabenian nekez baño galdu, ustelezkorak dirala esten dogu, adibidez; ufia, atxurdiña ta abar. Baña benez ustelezkora dan gaikixakirik ezta.

Ilkora, bixija galdu al ixatia dala esan dogu, eta ixakija, gaikixaki utza danian, bixidun ezta-ta, gaikixaki ilezkorik eztau.

Ilezkora irutara ixan dagike. (1ª) "Baru-ixatez". Ixan-barik ezin ixan dagike na, nai ta nai ez, noraezez ixan biar dauana, ixatez-ixakija dana, au ileziña ixatez da, oni bixi-ixatia ixatez zor yako. Onetarikorik bat baño ezta, Urtzi, ta au betikua da, beti ixan da, ta ixanko bere bai.

(2ª) "Adeiz, eskarez". Bixiduna dala, il kora ixan, ustelkora ixan eta Urtzi'k dautson adeiz, egin gura dautson ezkarez, il-barik, usteldu-barik irautia da, adeiz ilezkora ixatia.

Onetarikuak ziran, Adama ta Ebe gure lenengo Abeak. Ixatez geu lezko ilkor ta ustelkorak ziran, adeiz baña Urtzi'k euntsingo eutsen, eta oben-egiñaz, jatorezko eskara galdu ezpa-leben, ez eben bixitxarik galduko, etziran ilgo, ez ustelduko.

(3ª) "Ixapenez". Ixatia ta bixi-ixatia iñogandik artu, iñok emon, baña emon ixan dauanak egin ixan dauan ixakeraz bixija galdu ez egitekua egin, ixatia galdukora ixan ez, iraunkora baño, eta ixatia galdukora eztalako, beti ixango yakolako, bixi-ixatia be betikua yako, beraz, ilezkora da.

Onetarikua gixa-arimia da, baña gixa-arimia ilezkora dala diñogunian Urtzi'k il ezin dagikenik eztiñogu. Urtzi'k, alorroduna da-ta, berak gaiki-barik irazan, ixan-azo dauan arimia, arime au irazanda gero be, deuseztu dagike, eta deuseztuko ba'leu, ixatia berbera kenduko leuzkio-ta, bixitzarik be, ezingo leuke ixan, Onetara azaldu ta adirazota ba, gixa-arimia ilezkora dala diñogu.

X'garen Lon Doipurupian ospatu zan Letran'go V'garen Doibatz batzar Nagusijak, VIII'garen batzaldijan gixa-arimia ilezkora dala siñiskitzat ebatsi eban, eta diño: "Adimendun arimia ilkora dala diñuen gustijak gaiztetsi ta txaretsiten doguz". Beraz, gure arimia ilezkora dala, siñismena galdu-barik ukatu ezin dagikegun egija da.

Gu, arime utza ezkara, gorputz, utza bez, gorputz ta arimedun bai, eta gorputzak eta arimiak daben alkartze ulezeziñez bakotxa bat eginda gelditzen gara.

Gorputza urtiakaz azi, sendotu, indartsutu, baña baña eldu be, eta eldu-ostian beruntz makaldu, kikildu, indargetu ta il-egiten da.

Arimia ez, urtiakaz bizkortu itxartu ta geruago begi zolijagoz, geruago ta geyago ta obeto be ikusten dau. Gorputz eta arime bijak baterako iñarkunetzaz urtiak aurera-ta, makalaldija agertzen dau, lankaya erabilijaz amoztu ta gauzeztu egiten dan antzera jazoten yakola.

Baña "gogokizko egikuna" urtiakaz zolijago eztala esaten ezta iñor azartuko. Eta ixanbe, umekondo baten jakintzea baño seiramar urtedun agurearena edonok obetsiten dau, eta irakasle gaste barijenak baño urtietan irakasle ixan danaren gardijak be, geyenez bai.

Soña beruntz duala auts - egingo da, arimia goruntz beti bixiko da, eta bijok lankide ixan diran-artian, lana be bijok batera egin dabenaren, arimiak, bere lankidia ilda gero be, bere beriak dauzan eukiz lanian jarauko dau, bixi-ixango da, iraun egingo dau, ezta ilgo.

Arimia ilezkora eztala diñue: "gaikilari" gustijak.

Bai-ba, dan gustija gaikixakija baño ezpa-da gaikija ezin ilezkora ixan dagike-ta, arimia be ilezkora ezta.

2ª) Ilezkor ixatian naspildu egiten dabe: a) "Danurtzilarijak": onein ustez arimia Urtzerijokuna baño eztalako, eta biz taldi ostian Urtzerijokunau "deuxerijak" iruntsiko dau. Ustarixun onek beste ixen bat bai-dau, "bersortzia". b) "Aldebijaularijak": oneik arimek baterik bestera aldatzen dirala irakasten dabe, aulan, batian txorijarena ixan dan arimia, bestian, astuarena ixan dagikela, eta urenguan gixakijarena. ¡Euzkelduna! ¿Uste ixan dozu iñoz onelangorik iñok irakatsi dagikenik be? Utzeziña dan Doibatzagandik alde-egin ezkero edozer.

Guk, siñismena aldeztuaz, ikusi dagigun gure arimia ilezkora dala.

TABIRATARA.

(Daraike)

Itz atzalgarijak:
"Gaikixakija", materijala dan zerbait.
"Ela", atomua.
"Dikurala", significaten dauala.
"Eralguntzia", organizaziñua.
"Doibatzbatzar Nagosija", Concilio Ecumenicua.
"Gaiztetsi", condenau.
"Txaretsi", reprobau.
"Lankai", eramintia.
"Gogokizko egikuna", acto espirituala.
"Obetsi", preferidu.
"Gardija", oponiñua.
"Gaikilari", materialistia.
"Danurtzilari", Panteistia.
"Urtzerijokuna", emanaziñua.
"Aldebijaularija", trasmigracionistia.

Euzkotar umien aldez

DEYA

"Ibili ta ibili... joango naiz... Lats asko igaroko ditut uretan sartuta. Mundu guzia lotan egongo da, ateak itxita bero aundia egingo daualako... Eta ni joan egingo naiz ibili ta ibili... eta urruti, oso urruti, gero ta urrutiago bilatuko det lana."

Tagore.

("Amal" Sabiaga'k euzkeratuta.)

Orain urte bete dalarik neure lagun batek (amaika urtedun alaba bakar baten ama alarguna bera) gustiz itun esan zidan bere alabatxoa zeukan ikastetxeko lekaimeak esan ziotela ume ura oso ona zala ta lekaime izateko deya edo zuala.

—Ene—esan nion, etzaite estutu; zure alabatxoa Jaungoikoarena da ta beretzat nai ba'dizu. Etzite iñola ere bere deyaren aurka jarí, zeure alabatxo bakararen zoritxara zeuk egin ez dezazun.

Ama ia ziñistuta zegoan bere alabatxoaren lekaime deyan, ona zalako, erligio-zalea zalako, esangiña zalako eta neskatxoaren irakasleak ori esan ziotelako.

Baña egun batean ikusi nuan neskatxo arek bere amak erosi zion andere bati egin zion maitetasunezko arera. Ume aren poza! Ume aren anderea laztandu beara! Ume aren anderea bere biotzean estutu beara!

Ez det uste, andere ain edera beria izateak egin aretan bere gogoan egin zuan lotatza bere bizi gustian kenduko zayonik. Neuk igeri nionez pultsoa aldatu eta ariñagotu zitzayon. Bere zoriona aundiegia bai zan barruan gordetzeko! ta kan pora erteten zion, bere lekutik juan ezin dan erekatxoak egiten duan bezela.

Nere lagunari deitu eta auxe esan nion: —Zure alabatxoak ez du lekaime deirik, amatasun deya du, eta dei aundia, bere biotzean seme-alaba pilo aundi bat darama.

—Nola igeri diozu ba?—galdetu ziran.

—Bere anderia maitatzen ikusiaz—erantzun nion.

* * *

Bai dira umeak, iñoiz ikusi ez dituzten urutiko lurraldeak (ikusigabeak baña irudimenez eta biotzez igeriak) euren gogoari dei bizi-bizia egiten diotenak.

Onelako ume bat bere eriko itxas-ertzean exerita Sartalderantz begira-begira dagoanean, nork daki bere barruan entzuten ari dan dei gozoa?

Len Sortaldera ta Sartaldera, alde bietara begiratu oi zuan. Sortaldetik Ketaria'ko San Anton mendia, aruntzago Donostia'ko Igeldo, aruntzago Igeř Ondarubia'ko lur-mutura, azkenez beti urruti, beti urdin France'ko itxas-ertza.

Baña, udazkeneko iluntze batean beste aldetik eguzkiaren sarera ikusi zuanetik, ez du geyago eskubira begiratzen, Sortaldeko lur ayek ez dute beretzat deadarik. Baña, oi Sartaldeko lur maite ayek! Eguzkiaren dizdirakaz uria baño ederagoa ikusitako lurralde ura- Iñork ezin neurtu leike, eguzkiaren sarera eder arek ume onen irudimenean utzi zuan lotatza.

Arezkero, beti ezkerantz begiratuko du; beti Sartalderantz. Lenengo dauden mendi orlegi, basari zuri ederki ikusten diran oyek Itziar eta Deba, aruntzago Mutriku, aruntzago Ondarua ta Lekeitio (ondo dakiz umeak izen abek danak bere aitari ta amari sari galdetu dizkiolako, galdetu ta bergaldetu ia beti berdin esaten ote dizkioten eri oyen izenak).

Aruntzago berriz Bermio eta azken azkenean, beti urruti, beti urdin Matxitxako lurmutara. Lurmutur arentxen atzian eskutatzen da eguzkia.

Eguzkia sartu ta gero, ilun nabarean beriz argi eder bat pixtutzen da lurmutrean. Itzali ta pixtu egiten dana. Itzaltzen danatik eta atzera pixtu bitartean amaraño zenbatu leikez.

Argi orek duan eskutuki edo misterioa ume orentzat!

Eskubi aldetik ere, an, urutian, bai da beste itxas-argi bat, Bayona'koa edo, Baña ez baita aren atzetik eguzkirik eskutatzen!

Bera izango litzakean zorionekoa argi ura dagoan torean bizi ba'litz!

Andik bai ederki ikusiko dala eguzkia non sartzen dan.

Bai, berak, aundia izatera eltzen danean eguzkia eskutatzen dan lur oyen beri jakin bear du beintzat. Juan da juan, da juan egin eta zer dagoan ikusi bear du.

Aunditxoagoa egin danean, jakin du gauza bat, albiste edera. Alde ori Amerika'rako bidea da. Ortitxek juaten da Ameriketara.

Euzkotaren artean gauza arigaria dan aren, ez du berak Amerika'n ez osabarik, ez anairik, ez lengusurik, ez seniderik. Baña etzayo ardurarik. Anai aundiagoak, edo osabak egindako deyaren ordez bere gogoari Sartaldeak egiten dion dei indartsuak teink eginda, ume ori urtietara eltzen danean Amerika'ra juango da.

Eta obe izango du ara juatia, emen lantegi batean edo karera batean lana egiten gelditzea baño. Emengo lantegiak eta gauzak beti txikiak, beti itunak irudituko zaizkioz ta, eta bere irudimenak ango gauzak ederituaz eta zabalduaz biotzari maitekoragoak jartzen dizkiolako.

Emen ezer izango ez ziran asko gizon aundi izatera eldu dira Ameriketan. Iñoiz entzungo zenduten "Gezura dirudi! Onelako basefiko semea, emen bizi zanean beste batzuek baño geyago zanik ez zuan ematen, eta Ameriketan ain zori amaitu egitea".

Oyetxek dira ba deyaren edo bokazioaren indar eta eskutapenak.

Egiazko bokazio edo deyari jarraitzean dago bizitza onetako zoriona, baita beste bizitzakoa ere, deyari buruz France'ko olerkari batek esan duan bezela:

"Jarraitu ezayozu,
Ez ikaratu.
Ez eta bere ostean
Kurutzea ikusi aren.
Kurutzea dagoan lekuan
Dagoalako Jaungoikoa."

ARITOKIETA.

Luki Jauna Barriren - Barri

"Ikustekoa da, gero, neu zelan antolatzen nazan andrakumeakaz", ba-ziarduan ausnartzen Luki'k, "guztiakaz baña, Beltxan artzaren emazte lodikoteaz izan ezik; arek, bariz, ez dauko niretzat berba bat onik, patiñean jazo yakonaz ostean."

Eta alako pozor bat izan eban areri Andre Artz gaisoari beñola emon izan eutson salgoiaz gomutautean, naiz-ta a, egia esateko, dolorkeri andi bat izan.

Goizaldetxoa zan, eta bein Luki, olategi baten bere arazotxoa egin ostean, basari baten zear joialarik, ezagun ez yakan tayuz moldaturiko patin bat ikusi eban, eta axe ondo asertuten gelditu zan. Ugoitz bi eukazan, eta txirintola edo motoien bitartez gora ta beera erabili zeitekezan, bata gorantz etoren artean bestea berantz joiala. Sudu andia arturik goiko ugoitzean sartu zan Luki, eta non ikusten dauan pozez beterik bere buru patiñean beera doala, pirpirpirpir, arin-arin eta gozo-gozo; patin sakon-sakoneragiño ez zan lotu bere egin. Baña, lenengotako pozaldiak ez eutsan luzaro iraun. Ugoitzak, bein beera ezkero, ezetara bere ez eutsan gorako biderik artu gura izan, eta, ene Luki jauna, ziega ilun eta era txareko atan gelditu zan atxilo; zorionez, ez eukotsan urak, patiñaren baruan, ara beteko ondoa baño. Baña, aren aldariak!

Luki, oraitiño, adu onekoa izan beti! Une aretan, Andre Artz, Beltxan'en emaztea gerta zan an inguruan, eta aek deadar lariak nok edo zek eragiñak ziran ikusteko, patin aora uferatu zan.

"Oi, ene! Luki neure lobea!", egin eban oyu. "Zeri egiten dautsazu negar-alarao?"

"Ez nago bapere ondo, izeko, eta min andiak dodaz", erantzun eutsan osiñeko abotsak. "Ai, ene bada-ta! Dzanga-dzanga edan dot ura, gozo bere gozo, baña gatx-egin daust edateak, emen beion ain ugari diran mazkar betekadearen ganean. Eta, orain, bilduř naz olako zorakeria egin eban arako eregearen patua izango ez ete dodan nik bere!"

Edestia ez zan egiaz artz anderearen arlo ezaguna, baña: "Jakiña!" esan eutsan, zerbait azkorgari esatearen. Loba malmutzak isilean jauftiriko epayaren erenkura andirik ez eukala, agiri zan, ez bait-eban oindiñokaren aren asmorik ezagun. Gero, suduturik bera bere, ara non itaunduten dautsan lobeari, patiñeko arañak ain gozoak eta ain ugariak ziranentz.

"Sartu zaitez ugoitzean, bai, eta zeuk ikusiko dozu zeurekitean", erantzun eutsan arin baño pozago patin barukoak; eta Andre Artz, atzera begira barik, agudoen eta al eukezan ondoen bere atzeko anka giartsuak ugoitzean sarturik, aida baten joan zan beeak-beerantz.

A jatsi eta Luki goyan agertu, eta ez asare bere, jauzi bategaz bere burua bedartza ganean ikusi ebanean. Aidetzakoaren negar-ulueri jaramonik egitekoa, arin aldendu zan andik azeria. Zorionez artz-emearentzako, basetxeko morroe gazte bat etori zan goizean-goiz patiñetik ura ateraten, osterantzean osin aretan eukean bere galdumendia aurkitu.

Astun eritxon mutilak goiz atan ur-ugoizkadeari. Alan bere, oi ez litzaken zerbait izan zeitekeala bururatu bere egin barik, oin bat pokalean imiñi, txikotari gogor eutsin eta gorputz guztiaz indar egiñez, ba-ekaren gora; baña, azkenean, otoz-otoan artz amurtu bat pokale ganean agertu yakonean, artu eban ikareaz beraz, mutilak anka egin eban izututa, bertanbera guztia laga-ta. Ikara aldi arexeri eskef, Artz Andreak bere iges egin al izan eban, beste iñor gizonezkorik an agertu orduko.

Biaramonean, artz-ara, Beltxan bera joan yakon azeriari lotsak emoten bere emazteari egiñiko dongakeriaren alderako, eta atarako, Ibargaldu'ra egin bear, eban izan osterea, a zan bada Luki'ren sendiaren egotegiririk beñena.

Antxe egoan azeria, lasa, jolasean, Emerle emazteagaz eta Azagariñe eta Lukito seme-alabatxoakaz. Mistik atera barik entzun zituzan Luki'k osabearen agirika guztiak. Baña, azkenean, asi yakan Beltxan esaten, ara bere asareago eta garatzago, bere emazteari egiñiko iraña eta kalteak zearo ordaindu bear eutsazala kitu egoteko, eta azeriak zinu egin eutsan artzaren uziari. An ikusi zeinkezan azerikumak pozik, aitagandik azerikeria bariren bat ikasiko ete ebelakoan!

"Artzen ez ba'dot zuganik neuri yagokadan kitugari betea, eregenera joango nayatzu zuzen eske", zemaitu eban orduan artzak ofoe ikaragariaz eta begirakuna ilunaz, eta Lukito'k, ikarearen ikaraz, amaren altzoan eskutau eban bere burua.

"Ez zaitez olan asaratu", erantzun eutsan Luki'k, bigunkof. "Ezertan iraindu zaituedazala uste ba'dozue, izpidean zagoz irain-zauri ori osatuteko niri eskatuten. Baña, zer emon negizu zauri oren gantzugari? Ara; abai bat daukot; ba-dakit eztia gauza iguingaria, naskagaria dana, baña, zoritxarez, ez dot orain gauza dan besterik ezer zuri eskiñiteko.

"Abaia? Eztia?", beresan eban Beltxan'ek, begiak dirdir egiten eutsela. "Ez tiatzaz destañez berbetan entzuten dautsut ala txantxetan daragoiozu?? Niretzat beñipein ez da munduan ezer gozoagorik."

"Orezkero, esan egizu berba bat, eta neure ezti guztia zeurea dozu. Al dagizuna jan ostean, garatikoa bere eroan egin ziñegi."

Uste bako abindu aregaz guztiz baretuta, Beltxan'ek ontzat artu eban an asagotxoan, ibai baztefean egoan ortu batera Luki'k eroatea.

Arotz batena zan ortua, eta areitz zubil andi eratsi-bari bat egoan lurean. Zubila arakalaturikoa zan eta ziri sendo bi zituzan iminda, arakalea zabalik eukiteko.

"Ortxe dozu nire ezti guztia, laguntzara", esan eutsan Luki'k zugatz enbora erakutsiz; "arakala baruan burua sartutea baño ez daukozu, zeuk zenbat gura jateko."

Geyagorik entzun barik, ene Beltxan'ek burua eta eskuak sartu zituzan arakalan, eta eztia topa gurarik arazotuaren-arazotuz, ez zan oartu zubilari ziriak kenduten ziarduanik azeria.

Arako baten, areitz arakalea, draka, bat-batean itxi zan, eta ene artz gaisoa atxilo geratu zan, eskuak burua eta belariak antxe bertan sendo atrapaurik.

Ulu eta alarao egiten eban atxilotuak eta ba-ziarduan ekiñaletan andik urteteko, baña alperik. Eta arotzak garaiziak entzunik, makila sendo bat artuta ortura joan zan, zer denganiño ete ziran aek zaratak ikusteko.

Luki'k angirea legez egin eban zirist alik ariñen, beretzako ez egoala an zeregiñik esanik, "eta egiaz, Beltxan'en berbaikerea ez zan zaldun batek entzuteko langoa" esan eutsan emazteari, Ibargaldu 'ra atzera joanda jazorikoa eralgi eutsanean.

"Zatoze, zatoze arin! Artz bat atrapau dau gure areitz zubilak!", egin eban arotzat aldari, eta arotzegiako mutilak, geroko berandu esanda, maluak eta burdinagakaz, makilakaz eta bakotxak al eukeanagaz joan ziran arapaladan ortura, atzetik andraen batzuk eraikoela burunzi, itxuski eta abaregaz. Aldezpide bako Beltxan'en bizkarak jasan eban astiñaldia ez da esatekoa. Azkenean, oñazeak berak burutik eraginda, naiz-ta burua urratu, indaraldi bategaz azke gelditu zan, baña belari, erpe, eta sumintz eta naru zati galantak bere, zubil arakalan itzirik.

Dana odoletan eta il bearak amorratuazorik, esetsi egin eutsen Artzak bere borероeri. Andrak, ordurarteko artz artzailea bat-batean "emoi" emoile biurtuta ikusirik, garaizika eta igesika ekin eutsen, eta arotzaren emaztea, denduna galdurik, ankaz gora jausi zan ugaldean beera ibai osiñera. Andreak ez ekian ugar, eta gizonak a ikusirik, aldabatera joan yakazan guztiak uretarik ateraten, leya aretan artzagaz zearo aizturik.

Axe unea izan eban artzak naiko asazkaldi, bera bere uretaragiño narazka joan eta ibaiaren alde ugar egiñez, arerioakanik alde egiteko.

Itxura erukarian eldu zan etxera, eta oian etzanik, ba-ziarduan bere adu gaiztoari alaka eta bera saldu eban saltzailearen ala añen urtika. Alan bere ez zan konturatuten artza bere ergelkeria izan zala alako ezbearera eroan izan ebana. Emazteak esan bear izan eutsan a egia, euren asabaetariko baten koipeaz zauriak gantzututen eutsazan bitartean. Beltzan'ek esan leukion emazteari "eta i zeri begira egon intzonan alakorik susmau barik eure atzoko ezbeara izan orduko?", baña oñazeak ez eutsan adorerik izten emazteagaz eztabaidan azteko, eta orduko beintzat ez jaramotea ebatsi eban.

GARO'TAR BERNARTA M.'k.
ingelanderatik euzkeralduta.

ATZALGARIAK.— "Antolatu", arreglarse; "artz", oso; "patin", aljibe, cisterna; "salgoia emon", engañar, hacer burla; "dolorkeri", ruindad; "tayu", forma, traza; "asertu", examinar; "ugoitz", balde para sacar agua del pozo; "txirintola", polea; "sudu", interés; "sudutu", interesarse; "ziega", prisión; "atxilo", preso; "adu", suerte; "ozin", fondo, lugar donde es más profunda el agua; "mazkar", lamprea, cierto pez; "patu", fin, destino;; "edesti", historia; "malmutz", taimado; "jauzi", salto; "pokale", brocal del pozo; "otoz-otoan", impensadamente; "osterea egin", hacer viaje; "egotegi", estancia; "irain", ofensa; "zemaitu", amenazar; "gantzugari", bálsamo; "abai", panal de miel; "iguingari", enfadosa; "garatiko", resto; "abindu", oferta; "zubil, enbor", tronco; "ziri", cuña; "zaldun", caballero; "eralgi", referir; "burdiñaga", palanca; "aztiñaldi", tunda; "esetsi", acometer; "borero", verdugo; "dendun", equilibrio; "ugalde", ribera; "ugar egin", nadar; "leya", afán, porfía; "asazkaldi", momento de respiro; "alaka", quejándose; "saltzailearen ala", en contra del traidor; "gantzutu", untar; "ziñu egin", hacer mueca o burla; "uzi", pretensión; "sumintz", ternilla de la nariz (por extensión, "sumintzak" morros del ganado).

Deunen bixitza

Cantorbery'tar Toma deuna, gongotzain eta ziñopa

London'en jayo zan deun au 1117'garen urtean. Toki Deunak irabaztera joan zan gudaroztean, gurutzatuen artean, ibili zan bere aita. Egun batez, sinestegeabeak atxi lotu eben eta jopu egin. Apirkaren artean egoala, ango agintariaren alaba, aretzaz maitemindu zan eta, geroxeago, espetxetik aldegin ebanean, agintariaren alabak be etxetik igesegin eban eta zaldun kistarren atzetik London'era joan zan arekin an ezkontzeko ustean. Uri onetan ugutzatu eben emakumea ta Gilberta'kin ezkondu zan. Beraz, Toma deunaren ama apirkaretakoa zan jatoriz.

Gazte-gaztea zalarik, erakutsi zitun Toma'k gogoko ondasunak. Adimen zorotzekoa zan, bizia ta egokia. Lekaidetxe batera eroan eban aitak ikastera ta an era guztietako jakintzetan oparo gaitu zan.

Ez eutsoen gurasoak dirurik eta ondasunik itxi ta, bizitzeko, bere lana bear izan eban ogibide. Zaldun aberats baten idazkari izan zan. Nagusiakin batean joaten zan jolasaldietara. Eiza eben jolasik gogokoena; baña Jaungoikoak, alatz baten bitartez, aldendu eban jolas oneitatik gaztearen gogoa. Bein batean, aizean ebiltzala, ibaira jausi zan uso zauritua, ta Toma'k itxu-itxuan ibaira bota eban bere burua usoa artzeko. Etori aundiko ibaya zan, ordea, ta ba-eroan urak mutila an urean egoan erotazpiko arira. Eriotzaren agiñera iritsi zanean ,ordea, batbatean erota-arian tink egin eban. Etzan, arezkero, egundo joan eizara.

Geroago, bariz, gizarteko zorakeriak eta arinkeriak gogaituta, Cantorbery'ko gotzañaren otseintzara sartu zan. Bereala igari eban gongotzañak gaztearen gaitasun bakana ta azkartasuna; eta arlorik garantzitsuenetara jari eban. Urena, bariz, Doibatzari aintza aundia erakartzeko laingo gizona zala-ta, apaiz egin eban.

Laburki, Cantorbery'ko eleiznagusiko apaizburu ta ondasun-erabiltzale egin eben. A izan zan bere gogo-ondasunak erakusteko zio berezia. Aretzaz entzuten zituan onespenak zirikatuta, Endika bigarenak, ezagutu nai izan eban apaiz gaztea. Arituta lotu zan arekin izketatu zanean, eta bein baño geigotan agertu eutson eregeak bere adiskidetasuna gero.

Eregearen ondasunak zintzo erabiltzen zitun eta eleizpeko arloak buruzago ta egokiago. Atsedenik artu gabe jarduten zan egunez lanean; gabez, bariz, otoyari ekiten eutson bero ta ajolati. Lurean egiten eban lo ta zurdatzez zigorkatzen eban bere soña ankerkiro.

Eregeak bere seme eregegayaren azkenaren autu eban Toma. Bien bitartean, Cantorbery'ko gongotzaña il zan eta eregeak aren ondorengotzat autetsi eban. Eriak eta gotzañak ao batez sendotu eben gero eregearen auteskundea.

Gongotzain bariaren agindupean oro aldatu zan gotzaintza-barutia. Aurki uxatu zituan bere aginduen artetik lengo geyegikeriak. Baita ekandu lasayak zeartu ta esiratu be. Bere burua jartzen eban lenengo beste guztien eredu ta jaraibidetzat. Bizitza latza zan, benetan, gongotzañak egiana. Txiroen laguntzale ta ezeukien eusle agertzen zan beti.

(Daraike)

Joyería - Platería - Relojería
CONSTRUCCION
Y REFORMA DE ALHAJAS
Legazpi, 10 — DONOSTIA

ARIETA BITXIZALEA

Bitxitegia-Zillartegia-Gabeukaztegia
BITXIAK EGIN
ETA BERRITZEN DITU
-: Urritizkiña, 13.777 :-

Aranburu'tar R.
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros 5, 3.º, DONOSTIA